

Proposamena

BILTZAR AURREKO ARAUDIA

LAB

langile abertzaleen batzordeak

1999ko Iraila

ANTOLAKUNTZA

1.- EZTABAIDARAKO PROZEDURA.	3
I. Ponentzien aurkezpena.	3
II. Eztabaida markuak.	3
III. Egutegia.	3
2.- EZTABAIDAREN EDUKINAK.	4
I. Ponentziak.	4
II. Emendakinak.	4
III. Emendakinen batzordea.	5
3.- PARTE HARTZEA.	5
I. Parte hartze eredua.	5
II. Hautaketa sistema.	5
4.- KONGRESUKO ARAUDIA (PROPOSAMENA).	6
I. Kongresua garatzeko metodologia.	6

AURKIBIDEA

1.- EZTABAIDARAKO PROZEDURA.

I. Ponentzien aurkezpena.

Estatutuetan ezarritakoaren arabera, gutxienez kongresu aurretik 4 hilabeteko epearekin izango dira ponentziak afiliazioaren eskuetan.

Argitaratzea eta guztiok eskura dezagun ezagutaraztea Sindikatuak duen komunikazio tresnarekin egingo da, hau da, Iraultzen aren bidez.

Eztabaidaren abiapuntua izango diren edukinen aurkezpenak Eskualdeko Afiliatu Asanbladatan burutuko dira, ponentziagileak izango direlarik aurkezpenak egingo dituztenak.

Eskualdeko asanblada hauetan, bestalde, eskualde bertako eztabaida prozesua izango denaren aurkezpen eta zehaztapena egingo da Eskualdeko Idazkaritzaren proposamenaz.

II. Eztabaida markuak.

Ponentziak eztabaidatzeko markuak eskualdeko afiliatu asanbladak izango dira, bertan eztabaida bultzatu eta garatzea bermatuko dutenak Eskualdeko Idazkaritzak izango direlarik.

Marku hauen osagarri eta eztabaidan ahalik eta afiliatu gehien partehartzea helburua izanik, eztabaida beste markutan bultzatuko da, sail sindikal eta herrietako afiliatu asanbladatan.

Eskualdeko Idazkaritzak izango dira, bertako sektore eta herri Biltzarren errealitatean oinarriturik, eztabaida marku zein egutegien zehaztapena proposatuko dutenak. Proposamenaren eztabaida eta onartzea ponentzien aurkezpen asanbladatan egingo da. Herrialdeko Idazkaritza zein Sektoretako Herrialdeko egiturak proposamenen aurre ezagutza edukiko dute, herrialdetan egutegiak koordinatzeko xedearekin.

III. Egutegia.

1. AURREFASEA

- 99-6-28 Ponentzietako gidioen aurkezpena Idazkaritza Nazionalean.
- 99-7-31 I.N.ean Biltzarraren deialdia tratatzeko azken data.
- 99-7-12/99-10-04 Ponentzien gauzatzea eta I.N.an aurkezpena.
- 99-10-13/14 I.N.ean ponentzien eztabaida eta onarpena.
- 99-10-29 Biltzar Nazionala.

2. PONENTZI EGITEAREN FASEA.

- 99-11-30 Ponentzien argitaratzea.
- 99-12-01 Ponentzien banaketa

3. EZTABAIDA FASEA.

- 99-12-27//00-2-29 Ponentzien aurkezpen eta eztabaidak.
- 00-2-11 Osorako enmendakinen aurkezpena.
- 00-2-29 Enmendakin partzialen aurkezpena.
- 00-3-13//00-4-05 Enmendakinen eztabaida.

4. DELEGATUEN HAUTAKETA FASEA.

00-01-10/00-2-10 Delegatuen hautaketa 99/XII fakturazio datuekin.

5. KONGRESUA.

6. KONGRESU OSTEKO FASEA (EBAZPENEN ARGITARATZEA).

2.- EZTABAIDAREN EDUKINAK.

I. Ponentziak.

Biltzarra izanik Sindikatuaren erabakitze organu nagusia, bertan eman beharreko eztabaida eta hartu beharreko erabakietan afiliatuen parte hartzea bultzatu behar duen edukinen tratamendua bermatuko da.

Ponentzi zein eztabaidan eragingo duen argitalpen oro euskara zein gazteleraz argitaratu da. Eztabaidaren zehar euskararen presentzia bermatuko da eztabaida markutan ematen den errealitate lingüistikoan oinarriturik.

Ponentziekin batera edukinak kokatu eta laburbiltzen dituen eranskina aurkeztuko da eztabaidarako tresna osagarri moduan. Sindikatuko argitalpenetan (hala nola sektore zein eskualdeko aldizkarietan) eranskin honetan oinarritutako edukinen aurkezpena egingo da.

II. Emendakinak.

Emendakinak aurkeztu ahal izango dute sindikatuko afiliatu orok kongresuaren deialdia egitean sei hilabete afiliatu badaramazte, kongresua ematean "altan" eta kuoten ordainketan egunean egotea ezinbestekoa izango delarik.

Emendakinak aurkezten dituen pertsona orok du Biltzarrean aurkeztu eta defendatzeko eskubidea delegatu hautatua ez bada ere. Delegatu ez izanez gero, ezin izango du bere emendakina ez den eztabaida eta bozketetan parte hartu ez eta egingo diren inolako bozketetan ere.

Emendakina aurkeztu eta defendatzeari uko eginez gero bertan behera geratuko da emendakina ondorio guztietan. Kasu hontan, ezinezkoa da Biltzarreko edozein kidek emendakinaren defentsa bereganatzea.

Osatunezko emendakina aurrera egiteko beharrezkoa da bereziki horretarako bilduko den aurkezle edo aurkezleen eskualdeko asanbladaren gehiengoaren babesa. Edota altan eta kuoten ordainketan egunean dauden 75 afiliaturen sinadura. Eskualdeko Idazkaritzak argi ta garbi azalduko du asanblada honen deialdiaren arrazoiak.

Emendakinak idatziz zein soporte informatikoan pasatu beharko dira zehatz mehatz adieraziz zein den aldatzea proposatzen den zatia, emendakina egiten duenaren izena eta estrukturan duen kokalekua. Idazkaritza Nazionalari zuzenduzko zaizkio emendakin guztiak, zehaztutako epeetan derrigorrez, Idazkaritzak Emendakin Batzordeari igorriaz.

Emendakinen aurkezpena errazteko beharrezkoak diren tresnak bermatuko dira, inpreso, harremanetarako bideak...

III. Emendakinen batzordea.

Batzorde honek jarraian zehazten diren gaietan erabakitzeke gaitasuna izango du:

- Emendagileekin hitz egin ostean, proposamen eta planteamendutan antzekoak diren emendakinak eztabaidarako batu edota elkartu, eta planteatzen diren joskera nahiz idazkera alorreko akatsak zuzendu.
- Behar bezala aurkezten ez diren emendakinak baztertu, forma nahiz denbora arazoak eduki edo aldatu nahi den gaiarekin bat egiten ez duelako.
- Osorako emendakinak eztabaidara aurkeztuko diren edo ez erabakitzea.

Batzorde hau 99ko Abenduak 15erako osatuta izango da, osakera hau izango delarik:

- Biltzar Nazionalak hautatuko dituen lau pertsona, bat herrialdeko eta bakoitzaren herrialdearen proposamenez.
- Idazkaritza Nazionalak izendatutako hiru pertsona.

Batzordeko arduraduna Idazkaritza Nazionalean hautatuko da, bertan izendatutako hiruetatik bat izango delarik. Batzordean erabakiak gehiengo simplearekin hartuko dira.

3.- PARTE HARTZEA.

I. Parte hartze eredua.

Biltzarreko eztabaidan sindikatu afiliazio guztiak du parte hartzeko eskubidea horretarako eztabaida marku ahalik eta zabalenak bultzatuko direlik. Eztabaida honen ondorioz, eta bertan, kongresu eguneko ordezkariak hautatu beharko dira.

Kongresuan, sindikatuaren errealitatea isladatu beharko duten 500 delegatuk parte hartuko dute, 99ko Abenduko fakturazio datuen arabera hautatuak. Biltzarra 500 delegatuk eta Idazkaritza Nazionaleko 25 kideek osatuko dute.

II. Hautaketa sistema.

Eskualde bakoitzeko delegatu kopurua afiliazio kopuruaren arabera izango da, Idazkaritza Nazionalak Kongresua aurretik gutxienez bi hilabeteko epearekin igorriko duena Eskualdeko Idazkaritzetara. Kopuruarekin batera, eskualdetara afiliazioaren sektore, genero eta adina aldagaien arabera azterketa helaraziko da, eskualde bakoitzeko ordezkariak proposamenak egiterakoan Eskualdeko Idazkaritzak jarraitu beharreko erizpideak izango direnak.

Erizpide hauek kontutan edukirik, Eskualdeko Idazkaritzaren proposamenez, Eskualde bakoitzeko Afiliatu Asanblada izango da ordezkariak hautatu eta erabakitzeke markua.

Eskualdeko Idazkaritzak delegatuen zerrendak Idazkaritza Nazionalera bidaliko dituzte 2000. Otsailaren 29a baino lehen.

Hautatutako delegatuak, arrazoi nahikoak medio, ordezkatuak izan daitezke, hautatuak izan diren Eskualdeko Idazkaritzak izendatuko ditu ordezkariak, Idazkaritza Nazionalari helaraziz Kongresu aurretik 15 eguneko epearekin gutxienez.

99ko Abenduak 31an afiliatuak altan eta kuotaren ordainketan egunean dagoen afiliatu orok du hautatzeko eskubidea. Hautagaia izateko, Biltzarraren deialdia egitean sei hilabetetako aintzintasuna baieztatzea beharrezkoa da.

4.- KONGRESUKO ARAUDIA (PROPOSAMENA).

I. kongresua garatzeko metodologia.

- BILTZARRAREN HASIERA.

Biltzarraren lehendakaritza Idazkaritza Nazionalak izango du bere esku izango delarik jardunaldiei hasiera ematea, Gestio Txostenaren eztabaida eta onartzea eta Biltzarreko Mahaiaren hautaketa.

- ARAUDIA ONESTEA.

Idazkaritza Nazionalak aurretik Biltzar Nazionalan onartutako araudi proposamena aurkeztuko du plenarioan eztabaidatu eta onartua izan dadin.

- GESTIO-TXOSTENAREN EZTABAIDA ETA EBAZPENA.

Idazkaritza Nazionalak Gestio Txostena aurkeztuko du eztabaidatu eta onartua izan dadin, Txostena delegatu guztiek alde aurretik ezagutuko dute.

- MAHAIA HAUTATZEA.

Idazkaritza Nazionalak egingo du Biltzarreko Mahaiaren proposamena araudi honek ezartzen dituen erizpideetan oinarriturik.

Osakera pertsona bat lehendakaritza lanetan eta zortzi mahaikidekoa izango da, hauen artean banatuko direlarik beharrezkoak diren ardurak (aktak, jarraipen zehatzak e.a.), ezinbestekoa izango da sektore-lurraldeko egiturak zein sexu eta adinaren erizpideen arabera mahai orekatua osatzea.

Mahaia bere eginkizunetan euskaraz bakarrik arituko da.

Biltzarreko Mahaia hautatzean Idazkaritza Nazionalaren kargu uztea emango da eta mahaiak hartuko du ordezkartzaren zein Biltzarraren garapenak erakartzen dituen gainontzeko gai guztien ardura.

- PONENTZIA ETA EMENDAKINEN EZTABAIDA ETA EBAZPENA.

Lehenik eta behin, eta honelakorik balego, osoko emendakinen eztabaida eta ebazpena egingo da.

Prozedura:

- 1/. Ponentziaren aurkezpena.
- 2/. Emendakinaren aurkezpena.
- 3/. Ponentzigileen eskuhartzea.
- 4/. Eztabaida.
- 5/. Emendagilearen eskuhartzea.
- 6/. Ponentzigileen eskuhartzea.
- 7/. Bozketa.

Emendakin taldeak emendakin partzialen bat onartzen badu ere, eztabaiadarako prozedura berdina izango da.

Eskuhartzeak zehatzak izan daitezen zainduko du Mahaiak, aurkezpen luzeegiak ekidituaz.

- BOZKETAK.

Delegatu bakoitzak boto bana emateko ahalmena izango du eta ezinezkoa da inorregain delegatzea.

Ebazpen edo erabakiak hartzeko era jarraian zehaztutakoa izango da:

- Estatutuek gehiengo kualifikatuak exigitzen dituen kasuetan botoak zenbatu egin beharko dira.
- Gehiengoa argia denean erabakia hartuko da boto zenbaketa egin gabe, pertsonaren batek espreski eskatzea salbu.
- Zuzendaritza Organu Nazionalaren hautaketa bozketa nominal eta sekretuz egingo da.
- Osorako emendakinaren bat onartua izan dadin ezinbestekoa da bozketa unean bertan dauden delegatu guztien erdia gehi bateko onespena edukitzea.

- BATZORDE EXEKUTIBOAREN HAUTAKETA.

Kargua uzten duen Idazkaritza Nazionalak, Kongresuko eztabaidaren ondorioz hartzen diren ebazpenen arabera sindikatuak eratuko duen zuzendaritza organu nazionala osatuko duten ardura konfederal nazionalak betetzeko kongresuan aurkeztuko den hautagaien proposamena egingo du. Komite Exekutiboak, gutxienez Biltzarra aurretik bi hilabeteko epearekin aurkeztuko du proposamena Idazkaritza Nazionalan. Kargua uzten duen Idazkaritza Nazionalaren proposamena zerrenda osoaren izaera izango du talde orekaren perspektiba dela eta.

Biltzarreko lehen jardunaldiaren amaieran, Mahaiak Idazkaritza Nazionalak egiten duen proposamena aurkeztuko du. Ordutik, hurrengo eguneko 12ak arte, bestelako zerrendarik aurkezteko epea irekiko da.

Zuzendaritza Organurako zerrendagai alternatibo osoak aurkeztuko balira, zerrenda bakoitzak Biltzarkideen %10aren sinaduraren babes behar izango dute. Bozketa eta egin eta momentu horretan areatoan daudenen artean gehiengo sinplea lortzen duen zerrendak izango da behinbetiko proposamena. Ez dago pertsona bat zerrenda batean baino gehiago agertzerik.

Idazkaritza Nazionalak proposamena osatzen duen edozein arduretarako zerrendagai alternatiborik balego, proposatutako pertsonaren oneritziak gain, proposamen bakoitzak biltzarkideen %5aren sinaduraren babes behar izango du, ardura baterako aurkeztutako guztien artean hautaketa eginez bozketa sekretuaren bidez. Berdinketa gertatuz gero bozketa errepikatuko da boto kopuru berdina jaso duten hautagaien artean.

- ZUZENDARITZA ORGANU NAZIONALA BOZKATZEKO PROZEDURA.

Behin betiko zerrenda egiteko aurre prozesuaren izaera irekiaren ondorioz, zerrenda honen izaera itxia izango da, ixilpeko bozketari ekinez. Zerrenda honek aretoan bozketa unean dauden biltzarkide guztien gehiengo osoa lortu beharko du

- EBAZPENAK.

Sindikatuak esturktura orok idatziz Biltzarreko Mahaiari edonolako ebazpenak aurkeztu ditzake, beti ere ezta-baidagai diren ponentzien edukinetan eragiten ez badute.

- BILTZARRAREN GARAPENA.

Idazkaritza Nazionalak, Komite Exekutiboaren proposamenez, Biltzarrak garapen egokia izan dezan beharrek-ak diren bitarteko guztiak jarri beharko ditu. Hilabete bateko epearekin Biltzarreko delegatuei ondoren aipatzen diren gaien inguruko informazioa igorriko dizkie.

- Delegatuen egiaztagirak.
- Biltzarreko ordutegi eta jardunaldiak.
- Gonbidatuak.
- Amaierako ekitaldia.
- Kongresuaren garapen teknikoak (bapateko itzulpena, ordezkarien kokaguneak e.a.).